## DONOSTIAKO UDALA

### Idazkaritza Nagusia

*Animaliak babesteko eta edukitzeko udal araudia eta gizabidea, bide publikoen erabilera eta garbitasuna eta hiri paisaiaren babeserako udal araudia aldatzeko behin betiko onespena.*

2012ko maiatzaren 30eko Udalbatzan ondorengoaren berri eman zen:

«Udalbatzak, 2012ko martxoaren 28ko bilkuran, animaliak babesteko eta edukitzeko udal araudia eta gizabidea, bide publikoen erabilera eta garbitasuna eta hiri paisaiaren babeserako udal araudia aldatzeko hasierako onespena ematea erabaki zuen.

Hasierako onespen horren iragarkia Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu zen 2012ko apirilaren 4an, eta, hala, jendaurrean jartzeko eta entzuteko aldia hasi zen, 30 laneguneralko.

Jendaurreko epea bukatuta, ez da iradokizunik edo alegaziorik aurkeztu. Ondorioz, Toki Jardunbidearen Oinarriak arautzen dituen 7/1985 Legeko 49. artikuluko azken paragrafoan ezarrita dagoenez, ordu arte behin-behinekoa zen erabakia behin betiko onartutzat jo behar da eta Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN aldaketen testua publikatuko da.

Horiek horrela, Udalbatzari jakinarazten zaio, Donostiako Udalbatzaren Organo Araudiko 113. artikuluan xedatutakoa jarraituz, animaliak babesteko eta edukitzeko udal araudia eta gizabidea, bide publikoen erabilera eta garbitasuna eta hiri paisaiaren babeserako udal araudia aldatzea erabaki zuen akordioa behin betiko bihurtu dela».

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsoa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Donostia, 2012ko maiatzaren 31a.—Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga, Idazkari Nagusia.

(5438)

*Animaliak Babestu eta Edukitzeko Donostiako Udal Ordenantza.*

22. Artikulua, 1.go puntua:

«Txakurrak lokarriarekin eta lepokoarekin eraman behar dira bide publikoetan edo gizabanakoen joan-etorriko beste toki batzuetan, salbu eta berariaz baimentzen den tokietan. Muturrekoa erabiltzea udal agintariek aginduko dute, egoerarengatik hala komeni denean eta egoera horrek dirauen bitartean».

*Zibismoari, bide publikoaren erabilera eta garbitasunari, eta hiriko paisaia babesteari buruzko udal ordenantza.*

30. artikulua («Abereak eramatea»):

1. «Abereek ezingo dituzte lorategiak eta parterreak libreki inbaditu. Hala ere, lokarriarekin eta lepokoarekin behar bezala kontrolaturik eta eramanik, parke eta loradegi publikoetan barrena zirkulatu ahalko dute.

## AYUNTAMIENTO DE DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

### Secretaría General

*Aprobacion definitiva de la modificación de la ordenanza municipal para la protección y tenencia de animales y la ordenanza de civismo, el uso y la limpieza en la vía pública y protección del paisaje urbano.*

En la sesión plenaria de 30 de mayo de 2012 se dio cuenta de lo siguiente:

«El Excmo. Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 28 de marzo de 2012, aprobó inicialmente la modificación de la Ordenanza municipal para la protección y tenencia de animales y la Ordenanza de civismo, el uso y la limpieza en la vía pública y protección del paisaje urbano.

El 4 de abril de 2012 se insertó en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa anuncio de la citada aprobación inicial, abriéndose el plazo de exposición pública por plazo de treinta días hábiles.

Dentro de dicho plazo no consta que se haya presentado sugerencia ni reclamación alguna, por lo que, de conformidad con lo dispuesto en último párrafo del artículo 49 de la Ley 7/1985 Reguladora de las Bases del Régimen Local, puede entenderse definitivamente adoptado el acuerdo de aprobación inicial y procede, por tanto, la publicación del texto íntegro de las modificaciones en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Por lo expuesto, de conformidad con el artículo 113 del Reglamento Orgánico de Pleno, se da cuenta al Excmo. Ayuntamiento Pleno de la aprobación definitiva de la modificación de la Ordenanza municipal para la protección y tenencia de animales y la Ordenanza de civismo, el uso y la limpieza en la vía pública y protección del paisaje urbano».

Este acuerdo pone fin a la vía administrativa y podrá ser impugnado directamente ante la sala de lo Contencioso-Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de dos meses.

Este plazo se computará desde el día siguiente al de la publicación de este anuncio.

Donostia-San Sebastián, a 31 de mayo de 2012.—El Secretario General, Juan Carlos Etxezarreta Villaluenga.

(5438)

*Ordenanza municipal para la protección y tenencia de animales en Donostia-San Sebastián.*

Art. 22, punto 1 quede redactado como sigue:

«Salvo en aquellos espacios donde expresamente se autorice, en las vías públicas u otros lugares de tránsito de personas, los perros irán conducidos mediante correas y collar; el uso del bozal será ordenado por la Autoridad Municipal cuando las circunstancias así lo aconsejen y mientras duren éstas».

*Ordenanza municipal sobre el civismo, el uso y la limpieza en la vía pública y la protección del paisaje urbano.*

Art. 30. Conducción de animales, de modo que quede redactado como sigue:

1. «Los animales no podrán invadir libremente los jardines y parterres, si bien podrán circular, debidamente controlados y conducidos mediante correas y collar, por los parques y jardines públicos.

2. Salbuespen gisa, arriskutsu izan daitekeen animaliatzat sailkatuta ez daudenak, erasotzeagatik aurrekari erregistraturik ez dutenak, libreki ibili ahalko dira, 18:00etatik 12:00etara, hiri ingurumarietako parke hauetan: Miramon, Lau Haizeta, Otxoki, Ametzagaina eta Ulia.

Era berean, libre izango da arriskutsu izan daitekeen animaliatzat sailkatuta ez izan eta erasotzeagatik aurrekari erregistraturik ez dutenak Urgullgo parkean neguan 18:00etatik 12:00etara eta udan 19:00etatik 10:00etara lotu gabe ibiltzea. Eta libre izango da, orobat, zakur horiek, betiere jabea lagun dutela, 20:00etatik 10:00etara lotu gabe ibiltzea toki hauetan denetan:

— Antigua:

Ondarreta pasealekuaren eta Igeldo pasealekuaren artean diren gune irekiak (unibertsitate ingurua); Mikeleteen pasealekuaren, Pio Baroja pasealekuaren, Jauregiren eta Isturinen artean osatzen duten gune irekia, Ibaetako parketa eta Zapatari plaza.

— Aiete:

Damazelai parkea; eta alor hauen artean eratutako gune irekia: Katalina Eleizegi, Izostegi, Errondo gaina, Merkezabal eta Puio (Puio mendia).

— Amara:

Zorroaga gainaren eta Begiristain pasealekuaren artean eratutako gune irekia; Amaiur parketa eta haren aurreko lorategi gunea (Oroimenaren lorategia ez bestea).

— Loiolako Erribera:

Loiolako Erriberako pasealekua.

— Loiola:

Hondarreztatzaileen pasealekua.

— Txomin:

Kristobaldegi bidea (komentuaren ingurua).

— Martutene:

Okendotegi bidearen inguruko gune irekiak (Urumea ibaiaren eta GI 131 bidearen artekoa).

— Intxaurrondo:

Txaparrene pasealekua, Zubiaurre pasealekua; Mons pasealekuaren eta Sasiain kalearen arteko lorategi gunea (autobusen garaje ingurua).

— Herrera:

Arrobi.

— Bidebieta:

Herri Ametsako bidea; Salvador Allende parkea.

— Gros:

Manteo.

— Egia:

Matigoxotegi.

— Erdialdea:

Urumea pasealekua; Frantzia pasealekua (erreka ingurua).

— Parte Zaharra:

Pasealeku Berria.

3. Udaldian, debekatuta geratzen da txakurrak eta gainerako etxe abereak hondartzan ibiltzea, eguneko edozein ordu dela ere. Inoiz ere ezingo da Santa Klara uhartera joan etxe aberearekin, edozein espezietakoa dela ere».

2. Excepcionalmente, los perros que no estén calificados como Animales Potencialmente Peligrosos (APP) y que no tengan ningún antecedente registrado por agresión, podrán circular libremente por los parques periurbanos de Miramón, Lau Haizeta, Otxoki, Ametzagaina y Ulía entre las 18 h y las 12 h.

Asimismo se permitirá circular libremente a los perros que no estén calificados como Animales Potencialmente Peligrosos (APP) y que no tengan ningún antecedente registrado por agresión, por el parque de Urgull entre las 18:00 a 12:00 en temporada invernal y de 19:00 a 10:00 en temporada estival. Y también se permitirá que estos perros circulen libremente entre las 20 h. y las 10 h. por las zonas siguientes; en todos los casos los perros circularán en compañía de sus dueños/dueñas:

— Antiguo:

Áreas abiertas entre el Paseo de Ondarreta y Paseo de Igeldo (Universidades); Área abierta delimitada por el Paseo de los Mikeletes, Paseo Pio Baroja, PAlacio e Isturin, Parque Ibaeta y Plaza Zapatari.

— Aiete:

Parque Damazelai; Área abierta delimitada porKatalina Eleizegi kalea, Izostegi, Alto de Errondo, Merkezabal y Puio (monte de Puio).

— Amara:

Áreas abiertas delimitada por Zorroaga gaina y P.º del Doctor Begiristain; Parque de Amaiur y zona ajardinada de enfrente (excepto Jardin de la Memoria).

— Ribera de Loiola:

Paseo de Riberas de Loiola.

— Loiola:

Paseo de los Areneros.

— Txomin:

Camino de Kristobaldegi (zona del Convento).

— Martutene:

Áreas abiertas alrededor de Camino de Okendotegi (entre el río Urumea y GI 131).

— Intxaurrondo:

Paseo de Txaparrene, Paseo de Zubiaurre; Zona ajardinada entre P.º de Mons y Fernando Sasiain (cocheras).

— Herrera:

Arrobi.

— Bidebieta:

Subida a Herri Ametsa; Parque Salvador Allende.

— Gros:

Manteo.

— Egia:

Matigoxotegi.

— Centro:

Paseo del Urumea; Paseo de Francia (junto al río).

— Parte Vieja:

Paseo Nuevo.

3. Queda prohibida la circulación de perros y demás animales de compañía por las playas a cualquier hora del día durante la temporada estival. En ningún caso se podrá acceder a la Isla de Santa Clara con animales de compañía de ninguna especie».